

EZ OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Batzordea: Tokiko Gobernu Batzarra

Bilera-zenbakia: 2022ICGO0002

Eguna: 2022-02-08

Ordua: 13:00 – 13:08

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin LasaAstigarragako EH BILDU
- Andoni Gartzia Arruabarrena.....Astigarragako EH BILDU
- Nerea Zusberro Alberro.....Astigarragako EAJ-PNV

Bertaratu ez direnak

- Aintzane Barandiaran Ezponda.....Astigarragako EH BILDU
- Mikel Durán Gonzalo.....Udal-talde Sozialista

Idazkaria

Kontxi Urdampilleta Santamaría

Aztergaiak

Alkateak proposatu du premiaz gai zerrendan sartzea Portutxon komun publikoak eta bizikletak garbitzeko gunea instalatzea eta atsedenleku bat egiteko kontratuaren esleipena.

Gaiak sartzearen arrazoiak azaldu ondoren, bozkatzera ekin zaio eta aho batez onartu da gia aztertzea.

El alcalde propone que se incluya en el Orden del Día, con carácter de urgencia, la adjudicación del contrato para la instalación de aseos públicos y lavabibicicletas, y ejecución de un área de descanso en Portutxo.

Tras explicar los motivos para incluir el tema, se somete a votación y se aprueba por unanimidad analizar el mismo.

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2022ko urtarrilaren 25eko akta onartzea	1.	Aprobar el acta de 25 de enero 2022.
Berdintasun sailaren ikerketa bekaren 2022ko deialdia	2.	Convocatoria 2022 de la beca de investigación del Departamento de Igualdad.
Kontratazio-espeditzea: komun publikoak eta bizikletak garbitzeko gunea instalatzea eta atsedenleku bat egitea Portutxon. Esleipena	3.	Expediente de contratación: instalación de aseos públicos y lavabibicicletas, y ejecución de un área de descanso en Portutxo. Adjudicación



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Informazioa, galderak eta eskariak	4.	Información, ruegos y preguntas
------------------------------------	----	---------------------------------

Esan-eginak eta erabakiak

1- 2022ko urtarrilaren 25eko akta onartzea

Akta aho batez onartu da.

1.- Aprobar el acta de 25 de enero 2021.

El acta se **aprueba** por **unaninidad**.

2.- Berdintasun sailaren ikerketa bekaren 2022ko deialdia

Alkateak Berdintasuna eta Partaidetza batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin

Lehena.- ONARTZEA Astigarragako Emakumeen historia jaso, landu eta herritarren eskura jartzeko helburua duen Ikerketa bekaren oinarriak.

Bigarrena.- Ikerketa bekaren deialdi publikoa egitea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

2.- Convocatoria 2022 de la beca de investigación del Departamento de Igualdad.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Igualdad y Participación

Primero.- Aprobar las bases de la beca de investigación para recoger, elaborar y poner a disposición de la ciudadanía la historia de las mujeres de Astigarraga.

Segundo.- Proceder a la convocatoria pública de la beca de investigación

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen **por unanimidad**.

3.Kontratazio-espeditzea: komun publikoak eta bizikletak garbitzeko gunea instalatzea eta atsedenleku bat egitea Portutxon. Esleipena

Alkateak azaldu du abenduaren tokiko gobernu batzarrak erabaki zuela kontratua Acuña enpresari esleitzea, baina horrek kontratuari uko egin diola otsailaren 7an aurkeztutako idatzi bidez; eta akordio hau hartzea proposatu du:

LEHENA.- Onartzea Acuña SA enpresak 2022ko otsailaren 7an aurkeztutako eskaera, portutxon komun publikoak eta bizikletak garbitzeko gunea jartzeko eta atsedenlekua egiteko kontratuaren sinadurari uko egiteari buruzkoa.

-BIGARRENA. Portutxon komun publikoak

3, Expediente de contratación: instalación de aseos públicos y lavabibicicletas, y ejecución de un área de descanso en Portutxo. Adjudicación

El alcalde explica que la Junta de Gobierno Local de diciembre acordó adjudicar el contrato a la empresa Acuña, pero que la misma ha renunciado, por escrito de 7 de febrero, a la firma del contrato; y propone la adopción del siguiente acuerdo:

PRIMERA.- Aceptar la solicitud presentada, por Acuña SA el 7 de febrero de 2022, en relación con la renuncia a la firma del contrato para la instalación de aseos públicos y lavabibicicletas y la ejecución del área de descanso en Portutxo.

SEGUNDO.- Adjudicar el contrato para la



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

eta bizikletak garbitzeko gunea instalatu eta atsedeneku bat egiteko kontratua OLPRIM INGENIERIA Y SERVICIOS SA enpresari esleitzea 86.006 eurotan (BEZ kanpo), lehiaketa honetan punturik gehien lortu duen bigarren enpresa izan baita (93 puntu). Esleipena baldintzatuta egongo da hurrengo atalean adierazitakoari betetzera.

HIRUGARRENA- Enpresa esleipendunak, kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean, 4300,30 eurotako behin betiko bermea jarri beharko du Udaleko Diruzaintza Sailean; halaber, agiriak aurkeztu beharko ditu eta alde zuzeneko baldintzak egiaztatuta, baldintza plegu administratiboen 26. klausulan adierazten den moduan

LAUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta proposamena **aho batez onartu** da.

instalación de aseos públicos y lavabibicicletas y la ejecución de área de descanso en Portutxo a la empresa OLPRIM INGENIERIA Y SERVICIOS SA por 86.006 euros (IVA sin incluir), al ser la segunda propuesta que mayor puntuación ha obtenido en este concurso (93 puntos). Dicha adjudicación está condicionada al cumplimiento de lo estipulado en el siguiente acuerdo.

TERCERO La empresa adjudicataria deberá – en el plazo de 10 días contados a partir del siguiente de la notificación de la adjudicación del contrato – depositar en el Departamento de Tesorería del Ayuntamiento la garantía definitiva de 4300,30 euros, así como presentar la documentación y verificar los requisitos previos en la forma que se estipula en la cláusula 26 del pliego de condiciones administrativas.

CUARTO.- Notificar el presente acuerdo a todos los interesados en el procedimiento, y publicarlo en el perfil del contratante del Ayuntamiento.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** la propuesta **por unanimidad**.

4. Informazio, galdera eta eskariak

Igandean egindako herri-galdeketaaren harira, alkateak adierazi du zinegotzi guztiei bidali diela emaitzen taula eta boto-kontaketen aktak, eta argi gelditu dela herritarren lehentasunak.

Nerea zinegotziak zalantzan jarri du emaitza agerikoa izatea, kontuan hartuta parte-hartze txikia izan dela, eta alkateak erantzun dio desberdina izango litzatekeela emaitza oso doitu izan balitz.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2022ko otsailaren 8an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko udal-idazkaria

4. Información, ruegos y preguntas

En relación a la consulta popular realizada el domingo, el alcaldesa señala que ha enviado a todos los concejales y las concejalas los resultados y las actas de escrutinio, quedando claras las prioridades de la ciudadanía.

La concejala Nerea pone en duda que el resultado sea evidente, teniendo en cuenta la escasa participación, a lo que el alcalde le responde que sería diferente si el resultado hubiera sido muy ajustado.